

# FASTFATUM

GH 125

**GAZTELUPEKO HOTSAK**

[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)



**GAZTELUPEKO  
HOTSAK**  
Errabal 23  
20590 SORALUZE  
Tel: +34 943 753016  
Fax: +34 943 750139  
[gaztelupeko@hotsak.com](mailto:gaztelupeko@hotsak.com)  
[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)

## FasTFatum (Gaztelupeko Hotsak 2007)

Igor Calzada abeslari eta musikariaren alteregoa da FasTFatum, eta Harkaitz Cano idazlearekin elkarlanean burututako disko honekin plazaratzen da. Biak donostiarrak izanagatik, Calzada eta Canoren sorkuntza bideak ez ziren Antigua edota Egian lotu, New Yorken baizik, orain dela hamar urte hain zuzen ere. Aurretik Euripean Sua eta 5 Artzai Band taldeetan aritua zen Calzada bateria jotzaile zein abeslari gisa, baina Canorekin elkartzeko hiri hartara egindako bidaiak bere kantuegile ibilbidearen abiapuntua ezarri zuen. Geroztik biek partekatutako mundu sinbolikoaren testigantza utzi digute musika eta literatura, kantuak eta istorioak uztartutako proiektuetan, *Henry Bengoa Inventarium* obra erreferentziatza hartuta. uZTAIL oPARO oSTEAN etorri zen lehenengo, ehundik gora emanaldi eta autoekoiztutako disko batekin (UOO Records, 2000), eta hura Ostein bihurtu zen geroago, bi taldekide berriekin osatua: Luis Fernandez (biolontxelo jotzailea) eta Oianko Txoperena (webmaster eta diseinatzaile grafikoa). *Hirisladak* doinu, hitz eta irudi ikuskizuna hainbat lekutan aurkeztu zuen laukoteak.

Ibilbide horretan ikasitakoaren emaitza eta aldi berean abiapuntu berri bat da FasTFatumen sorrera. Izenak hitz joko bat egiten du Bernardo Atxagak idatzi eta Ruper Ordorikak musikatutako poemaren izenburuarekin, "patu azkarra" adierazteko. Hain zuzen, mundu honetako aldia urgentziaz eta gogoz bizitzeko premia aldarrikatzen du FasTFatumek. Eta hori, Calzadaren kantuetara eramana, ametsak edukitzea da,

aurrera egiteko beharra sentitzea, urruneko lekuetan babeslekua aurkitzea, ondokoa maitatzea, hiriak eta jendea ezagutzea, eguneroko une soilez gozatzea, norbera izateari eustea...

FasTFatum ez zen sortuko Calzadak Irlanda eta Islandiarekin duen loturarik gabe. Irlandan ernatu dira FasTFatumen istorio hauetako asko, Dublingo kaleetan gitarra jotzen bizitako esperientzietan aurkitu du Calzadak inspirazioa. Glen Hansard The Frames taldeko abeslaria kantatzen hasi zen kale beretsuetan ibiliko zen beharbada, eta horregatik haren kantu bat hartu du disko honetarako, *Sleeping*. Joan den abuztuan Irlandara itzuli zen Calzada, bira eman zion uharteari, eta Ismael Igartuaren kamerak hartutako irudiez osaturiko film batekin itzuli zen, diskoarekin batera edizio mugatuan oparituko dena: *FasTFatum Irish Road Trip 2007 ... to ever dream*. Irlandak ez ezik, uZTAIL oPARO oSTEAN-en garaitik Islandiak Calzadarengan eragiten duen lilurak ere isla du lan honetan ("*Everything egia da hemen*", diosku *Reykjavik* kantuan). Europako iparraldera begiratzen duen pop elektroakustikoko diskoa egin du FasTFatumek, sintetizadore, programazio eta sanplerren erabilera zabalak tecno-pop estilora (*Amets extremo*) eta múm bezalako talde eskandinaviarren indietronica eremu hozberora gerturatzen baitute tarteka. Bestetan, post-rock taldeen eraginak barneratzen ditu. Horiekin batera, ltoiz da behin baino gehiagotan agertzen den beste erreferentzia (*Bjork & Marilyn, Elurra zaurien gainean, Exit*). Bederatzi kantu berriez gain, uZTAIL oPARO oSTEAN-en diskoko *Ostein* abestiaren moldaketa berri bat eta *Amets extremo*-ren bertsio alternatiboa -bideoklipa barne- biltzen ditu diskoak.



Diskoa etxeko estudioan grabatu du Calzadak eta berak jo ditu ia tresna guztiak: gitarrak, baxua, pianoa, teklatuak, bateria, perkusioak, programazioak eta sanplerrak. Luis Fernandezek (biolontxelo) eta Aitziber Viscarretrek (saxofoia eta flauta) lagundu diote moldaketak osatzen. Calzadak berak idatzi ditu hitzak lau kantutan, eta gainerakoak Harkaitz Canorenak dira. Zuzenean biak agertuko dira batzuetan, eta beste batzuetan Calzada bakarrik. FasTFatumen emanaldiek musika eta testuak batuko dituzte, diskoarena bezalako giro berezi eta propio bat sortze aldera. □

## EGILEAK DIO...

**Zein dira Harkaitz Canok eta zuk partekartzen duzuen mundu sinbolikoa ehuntzen duten hariak?**

Hitzak, noski. Gure arteko lankidetzeta eta elkarlana oso naturala da, oso sinbiotikoa, ez dugu konpartimentu estankoetan funtzionatzen. Zuk diozun bezala, mundu sinbolikoa bat osatzen joan gara, eta horretan jarraituko dugu aurrerantzean ere. Ametsak, zeru eta begi urdinak, Reykjavik, Dublin, Helsinki, pertsonak, isiltasuna, Bjork eta Marilyn, leihoek, elurra, hotza, kaleko inguru izoztuek... Horrek guztiak osatuko luke gure mundu sinbolikoa, entzuten dudana musikak eta irakurtzen dudana literaturak ziprztindua. Ni eroso aurkitzen naiz hor, eta hortik jarraituko dudana susmoa dut. Hotzean, emozioak oso ondo kontserbatzen dira. □

**Irlandak eta Islandiak eragin handia izan dute disko honetan. Zerk erakartzen zaitu bi lekuotatik? Zeren bila joan zinen? Zer aurkitu zenuen?**

Leku hotz eta isilek esanahi berezia dute niretzat. Finlandian izan nintzen lehen aldian, isiltasunak zeharo harrapatu ninduen. Islandiak sekulako indarra duen lurraldea iruditu zitzaidan, solemnidade erabatekoa. Eta horrek badu nolabaiteko isla hango taldeen musikan, mum edo Sigur Ros, batzuk aipatzearen. Isiltasunak, sotiltasunak eta intentsitate altu eta baxuek bereizten duten lengoai ezberdin bat da. Han hori aurkitu egiten da, ez da bilatu behar, eta ni giro horrek zeharo inspiratzen nau eta sortzera bultzatzen nau. Intuizioak eraman ninduen Islandiara, gustatuko zitzaidala sumatzen nuen, eta intuizioa gutxitan erratzen da. Irlandak beste azalpen bat du. Musikaren herrialdea da niretzat. Jendeak musika maite du, edo gutxienez errespetatu. Giro atsegina da. Eta horregatik joan izan naiz askotan gitarrarekin kalean jotzera, leku zehatzetara. Irlanda niretzat oso garrantzitsua da eta guztiz barneratuta daukat han kantuak sortzea. Nire gotorlekua da. Agian 11 urterekin U2ren War diskoa entzunez piztu zen guztia, ezta?

**Ez duzu zure burua muskaritzat jotzen, baina instrumentu guztiak, eta ez dira gutxi, zuk jotzen dituzu. Zergatik zuk zeuk dena egin?**

Hori argi dut, ez naiz musikaria, ezta kantautorea ere, kantuegilea baizik. Kantua da gunea, baina zertzeladen eta moldaketen mundua asko gustatzen zait. Hori da gustuko ditudan musika guztien ezaugarri komuna. Diskoa oso modu autonomo eta librean egitea zen asmoa, eta oso ondo funtzionatu du. Duela hamar urte banuen asmo hori eta orain gauzatu da. Aurrera begira, molde bera erabiliz, soinuari eta interpretazioari eskaini nahi diet lehentasuna.

**Informazio gehiago:**

[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)